

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Gure zerbitzua aurrera eramateko beste zenbait enprekin elkartuko gara. Gure kasuan hiltegi batekin eta garraio enpresa batekin jarriko gara harremanean. Hiltegian gure baserrian ditugun animaliak hiltzeaz, prestatzeaz eta guztiz garbitzeaz arduratuko dira. Tolosako hiltegiarekin elkartuko gara (Donostia Hiribidea, 3).

Beste aldetik, produktuak baseritik hiltegira, alderantziz eta ondoren jatetxera garraiatzeko, garraio enpresa bat kontratatuko dugu. Asteazkenera eskainiko dugun etxera jatetxeko janaria eramateko zerbitzua betetzeko, garraio enpresa bat kontratatuko dugu. Horretarako Mikeltrans enpresa autonomoarekin elkartuko gara.

Azkenik, gure jatetxea turistei guri buruzko informazioa baliatuko dien bidai agentzia batekin elkartuko gara. Hau, Viajes el Corte Ingles izango da eta Donostia ingurua ezagutu nahi duten turistei, gure jatetxea bisitatzea gomendatuko diete. Viajes el Corte Ingles bidai agentzia aukeratu dugu, bai nazionalki eta bai internazionalki ezaguna den agentzia delako.